



TXOSTEN METEOROLOGIKOA – 2019KO APIRILA

Apirila lehorra izan zen, eta tenperaturari dagokionez ohikoa eta beroa artekoa. Muturreko fenomeno meteorologikoei dagokienez, lasaia izan zen, baina nabarmentzeko gertaera batzuekin. Apiril hasieran, adibidez, 3ko gauean eta 4ko goizaldean elurra egin zuen kota ertainetan. Gero, hilaren 13an, Araba erdialdean serie klimatologikoetako tenperatura minimo absolutuak neurtu ziren, Vitoria-Gasteiz hiriburuan ere bai. Igorritako abisuak arrazoi anitzekoak izan ziren, baina ugarienak nabigaziorako eta haizeagatik igorri ziren.

Prezipitazioa

Prezipitazioari dagokionez, hilabetea lehorra izan zen, baina Araba hegomendebaldean eta kostaldean kalifikazioa ohikoa izan zen. Euri gehien Gipuzkoa ekialdeko mendi inguruetan egin zuen, Nafarroako mugan (Berastegi 157.7 mm, Eskas 152 mm, Ameraun 141.4 mm). Beste leku batzuetan ere 100 mm baino gehiago pilatu zen: Gipuzkoa barnealdean (Bidania 128.6 mm, Urkulu 115.5 mm, Aitzu 115.1 mm) eta Bizkaiko kostaldean (Berriatua 116.8 mm, Muxika 104.6 mm). Euri gutxien Arabako Errioxan eta Lautadan egin zuen (Moreda 44.4 mm, Alegría 56.3 mm, Salvatierra 61.6 mm), eta Enkarterri inguruan ere urria izan zen prezipitazioa (Ordunte 50.6 mm, Cerroja 62 mm, Sodupe-Cadagua 64.1 mm).

Apirilean euri-egun kopurua handia izan ohi da, neguan bezainbestekoa edo handiagoa, nahiz eta pilatutako kantitatea txikiagoa izan ohi den. Eta aurten ere hori izan da joera. Ohi baino euri-egun gehiago izan genituen: gutxien Arabako Errioxan, 9, eta gehien Donostian, 17. Euri-egun horiek hilabete osoan sakabanatu ziren, baina gehienak lehen herenean pilatu ziren.

Lau euri-egunetan euri kantitatea oso ugaria izan zen, 30 mm baino gehixeago. Hilaren 15a izan zen, nabarmen, egunik euritsuena EAEn. Kantauriko bailaretan 20 mm baino gehiago pilatu ziren, eta puntualki 40 mm-ra iritsi ziren Gipuzkoa barnealdean (Aitzu 41.1 mm, Urkulu 39.5 mm, Oñati 29.3 mm, Añarbe 28.9 mm). Gainera, kantauri isurialdearen barnealdean euriaren intentsitatea handia izan zen (Urkulu 28.3 mm/h, Aitzu 26.5 mm/h, Cerroja 21.1 mm/h, Areta 20.3 mm/h, Gardea 19.6 mm/h, Orozko 18.6 mm/h, Oñati 17.7 mm/h).

Azpimarragarria izan zen ere hilaren 3an gauean eta 4an goizaldean izan genuen elurte berantiarra, izan ere elur-kota 500-600 m-ra jaitsi zen. Neguko eguraldi ezegonkorra izan genuen, zaparradekin, txingorrarekin eta trumoi-ekaitz batzuekin, bereziki ipar isurialdean. Alabaina, barnealdean prezipitazioa ez zen ugaria izan eta elurra goizean segituan urtu zen.

**Taula 1: Azken urteetan apirilean pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010
Deusto	60.6	107.7	60.0	55.9	61.7	41.2	138.7	182.4	33.6	41.7
Lasarte	115.7	225.5	79.5	75.3	100.5	80.0	158.3	229.7	54.3	46.3
Arrasate	89.1	188.8	76.1	122.4	58.5	54.7	190.9	211.1	68.0	23.4
Abetxuko	78.2	123.6	17.7	49.6	39.2	36.5	74.0	102.6	62.4	18.7
Párganos	66.6	96.1	11.6	33.8	14.3	32.2	43.7	61.9	48.5	6.8

Temperatura

Temperaturari dagokionez, apirila ohikoa eta bero artekoa izan zen. Kostaldean batez besteko temperatura 12-13 °C ingurukoa izan zen eta Arabako Lautadan 10 °C ingurukoa. 1981-2010 erreferentziako denboraldiko batezbestekoarekin alderatuz, diferentzia positiboa izan zen EAE osorako, 0.6 °C ingurukoa; zertxobait altuagoa kostaldean eta zertxobait baxuagoa barnealdean. Azken urteekin alderatuz, bero gutxien egin duenatarikoa da, 2011 eta 2015eko batezbestekoetatik urrun.

Apirilaren 13ra artea egun hotzak nagusitu ziren, eta ordutik aurrera beroak.

Egunik hotzera 3a izan zen, orduan aire masa polar eta heze batek eragin zigen. Batez besteko temperatura 10 °C-ra jaitsi zen kostaldean eta 5 °C-ak doidoi gainditu ziren barnealdean. Kantauri isurialdeko zenbait lekutan minimo absolutuak neurtu ziren (Oiz -2.2 °C, Urkiola -1.2 °C, Eskas -0.4 °C) eta hurrengo egunean beste leku batzuetan (Untzueta -0.8 °C, Bidania -0.4 °C, Cerroja -0.2 °C). Bi egun haietan mediterraneo isurialdearen erdialdean adbekzio-izozteak izan ziren, oro har txikiak. Alabaina, zonalde horretan minimo absolutuak hilaren 13an neurtu ziren. Izotz handia egin zuen leku askotan, egun horretan gaueko erradiazioagatik, gainera zenbait lekutan temperatura inbertsio handiak izan ziren (Iturrieta -6.6 °C, Pagoeta -5.3 °C, Subijana -5 °C, Navarrete -4.7 °C, Salvatierra -4.6 °C, Sarria -4.6 °C).

Temperatura maximoei dagokionez, anomalia positibo nabarmenenak hilabeteko erdialdeko egunetan neurtu ziren. Balio altuenak hilaren 15ean neurtu ziren Bizkaia barnealdeko bailara eta arroetan (Oleta 28.1 °C, Sodupe-Cadagua 27.6 °C, Aranguren 27.5 °C, Elorrio 27.1 °C). Mediterraneo isurialdean maximo absolutuak hilaren 29an neurtu ziren (Moreda 24.7 °C, Espejo 23.2 °C, Kanpezu 22.5 °C).

Intsolazioa ohiko balioetatik hurbil egon zen, mendebaldeko kostaldean izan ezik, zonalde horretan eguzki-ordu gutxiago izan zen (160 ordu inguru Donostian eta Vitoria-Gasteizen, eta 120 ordu inguru Bilbon).

**Taula 2: Apirilean, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan**

	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010
Deusto	13.5	14.4	12.7	13.4	15.5	14.6	13.0	11.7	16.6	14.2
Lasarte	12.1	14.3	12.1	12.1	14.2	13.6	12.2	10.8	15.8	13.6
Arrasate	10.6	12.6	11.2	10.0	12.8	12.6	10.2	8.7	13.9	9.4
Abetxuko	9.7	11.4	10.5	9.2	12.1	12.5	9.9	8.4	12.9	11.8
Párganos	10.1	11.3	12.1	9.6	12.5	13.2	10.3	8.9	13.8	12.3

Haizea

Apirilean bigarren eta hirugarren koadranteke haizeak nagusitu ziren, nahiz eta egun batzuetan laugarren koadranteke haizea ere azpimarragarria izan. Haizea, orokorrean, indartsua izan zen, egun askotan bolada oso gogorak izan genituen, bai haizeguneetan bai haizeguneak ez diren lekuetan. Haize-boladek 4 egunetan gainditu zituzten 100 km/h-ak, beti hego-osagaikoak: hilaren 4an (Orduña, 100.5 km/h), hilaren 17an (Oiz, 100.9 km/h), hilaren 19an (Kapildui, 100.2 km/h) eta hilaren 24an (Orduña, 110.8 km/h; Cerroja, 105.1), azken egun hori izan zen hilabeteko haizetsuena.

Hasieran ipar-mendebaldeko haizea nagusitu zen, nahiko indartsua, bolada oso gogorrekin haizeguneetan. Alabaina, hilaren 4tik aurrera Atlantikoko depresioak gailendu ziren eta, ondorioz, hego-mendebaldeko haizea. Egoera hark eutsi egin zio hilaren 10a arte. Orduan Atlantikoko depresioek indarra galdu zuten eta haizeak iparraldera egin zuen; hasieran ipar-mendebaldekoa nagusitu zen eta gero norabide aldakorrekoa.

Apirilaren bigarren herenean egoera sinoptikoa oso aldakorra izan zen eta haizea ere bai. Egun batzuetan brisa izan genuen eta hilaren 15ean hego-ekialdeko haizea nagusitu zen. Egun hartan, arratsaldean, enbata izan zen. Hilaren 17an berriro ere hego-ekialdeko haizea nagusitu zen eta haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gainditu zuten haizeguneetan. Beste pare bat egunetan hego-ekialdeko haizearekin jarraitu genuen, baina intentsitatea txikiagoa izan zen.

Apirileko azken herenean berriro ere Atlantikoko depresioak gailendu ziren eta haizeak hego-mendebaldera egin zuen. Tarteka, fronteak pasatzen zirenean, haizeak ipar-mendebaldera egiten zuen. Azken egunetan antizikloia nagusitu zen eta haizea norabide aldakorrekoa izan zen, arratsaldetan brisarekin.

Nabarmenezko bi gertaera izan ziren, bat hilaren 17an eta bestea 24an, biak hego-osagaiko haizearekin. Apirileko gertaera garrantzitsuena 24koa izan zen (110.8 km/h en Orduña). Azpimarragarria izan zen ere, hilaren 15ean gertatu zen enbata. Bestalde, trumoi-ekaitzei loturiko haize-bolada oso gogorak izan genituen hilabete osoan sakabanatuta, azpimarragarrienak hilaren 15ekoak.



Analisisa

Apirilak 1.

Apirila eguraldi egonkorrekin hasi zen, egunaren lehen partean Bizkaiko golkoan kokatu zen presio altuen eremu txiki bati esker.

Apirilaren 2tik 4ra

Hilaren 2an egoera nabarmen aldatu zen. Depresio hotz bat askatu zen Britainiar uharteetatik eta hari loturiko fronte hotz luze batek Kantauri zeharkatu zuen arratsalde-gauean. Egunak aurrera egin ahala haizeak ipar-mendebaldera egin zuen eta zerua hodeitsu geratu zen, baina ostarteak zabaldu ziren eguerdian. Azken orduetan, frontea iristearekin batera, euria hasi zuen. Hilaren 4an eguraldiak negu itxura hartu zuen. Frontea pasa ondoren itsasaldetik aire masa polar bat iritsi zen, 500 hPa-eko mailan -30 eta -32 °C-ko temperaturarekin eta 850 hPa-eko mailan -3 °C-ko temperaturarekin. Eguraldi oso ezegonkorra: zaparradak, txingorra eta trumoi-ekaitz batzuk, batez ere ipar isurialdean. Elur-kota goizaldean 1200 m-ra zegoen eta egunak aurrera egin ahala jaitsi egin zen, azken orduetan 600 m-ra. Hilaren 4an egoerak hobera egin zuen. Depresio hotza, ekialdera mugitu beharrean, mendebaldera mugitu zen: Galizia iparraldearen eta Britainiar uharten artean kokatu zen, beraz haizeak hego-mendebaldera egin zuen. Goizaldean eta goizean goiz prezipitazioa egin zuen elur moduan, baita 500 m-tik behera ere. Alabaina, eguerdian ostarteak ireki ziren denean, eta hego-mendebaldeko haizearen eraginez eta aire masaren aldaketaren ondorioz (850 hPa-eko mailan temperatura -2 °C-tik, goizaldean, ia 5 °C-ra igo zen arratsaldean), leku askotan temperaturak 16 °C-ak gainditu zituen.

Apirilaren 5etik 7ra

Giro ezegonkorra izan zen egun haietan. 500 hPa-eko mailan ibar handi bat zegoen Britainiar uharten mendebaldetik Iberiar penintsularen mendebaldera hedatuta. Lurrazalean egoera antzeko izan zen, presio baxuen eremu oso zabal baten eraginpean egon ginen. Presio baxuen zonaldeak bi erdigune zituen, bat Finisterren eta bestea Irlanda hego-mendebaldean. Depresio horri loturiko hainbat frontek zeharkatu zuten Iberiar penintsula, baina beti hego-mendebaldeko haizearekin, beraz ez zuen euri askorik egin. Horrela, hilaren 5ean fronte batek eragin zigun eta goizean euri txikia egin zuen han-hemenka. Arratsaldean, aldiz, ezegonkortasunaren ondorioz zaparradak bota zituen Araba eta Gipuzkoa ekialdean. Zaparradak Burgos iparraldetik sartu ziren eta elur-kota 900 m inguruan egon zen. Hilaren 6an presio baxuen eremua hegoaldera mugitu zen eta Galizian kokatu zen. Gero ekialdera mugitu zen, 996 hPa-eko erdigunea erabat sortuta. Alabaina, ekialdera mugitu ahala, depresioa betetzen joan zen eta gauean erabat desagertu zen. Goizaldean zerua hodei gutxirekin geratu zen eta izotza egin zuen Arabako zenbait lekutan. Goizean hego-mendebaldeko haizearen eraginez zeruak hodei gutxirekin jarraitu zuen, bereziki ipar isurialdean. Arratsaldean hodeiak nabarmen ugaritu egin ziren eta zaparradak bota zituen nonahi. Hilaren 7an eguraldia egonkorragoa izan zen. Goizean hodei hondarrak geratu ziren ipar isurialdean eta euri pixka bate gin zuen, batez ere Gipuzkoan, baina eguerdian ostarteak ireki ziren.



Apirilaren 8tik 12ra

Hilaren 8an beste ibar bat hurbildu zen Atlantikotik Penintsulara eta goizean Galizian kokatu zen, fronte-sistema batekin. Fronte hotz batek zeharkatu zuen EAE goizean. Hodei ugari izan genuen eta euria egin zuen, oro har euri txikia; arratsaldean atertzera egin zuen eta gauean ostarte zabalak ireki ziren. Hilaren 9an depresioa Finisterretik gertu kokatu zen, ondo definitutako fronte okluidu batekin. Hego-mendebaldeko haizea ibili zen eta egunaren lehen partean zerua hodei gutxirekin egon zen; horregatik goizaldean izotza egin zuen Arabako zenbait lekutan. Goizean, hego-mendebaldeko haizearen eraginez tenperatura nabarmen igo zen. Arratsaldean, ezegonkortasunaren ondorioz, ekaitz-guneak sortu ziren eta mendebaldean izan zuten eragina, bereziki Bizkaian. Hilaren 10ean depresiogunea bete egin zen eta haizeak ipar/ipar-ekialdera egin zuen. Ipar itsasoan antizikloi bat zegoen eta presio baxuak Genevako golkoan. 500 hPa-eko mailan aire masa hotza agertu zen Kantaurin. Goizaldean oskarbitu egin zuen, baina berriro segituan hodeitu zuen eta zaparradak bota zituen, batez ere Bizkaia ekialdean eta Gipuzkoa mendebaldean. Gauean zaparradak intentsitate handiagokoak izan ziren eta kantauri isurialdean trumoi-ekaitzak jo eta txingorra bota zuen. Hilaren 11an eguraldia antzekoa izan zen, zaparrada batzuk bota zituen eta trumoi-ekaitzen bat ere izan zen, sarriago eta ugariago ipar isurialdean, eta 30 mm inguru pilatu ziren; arratsaldean atertzera egin zuen. Hilaren 12an egonkortzera egin zuen. Eskandinavia inguruan zegoen presio altuen eremua, erdigunean 1039 hPa-ekin, Azoreetako antizikloiarekin lotu zen zubi antizikloniko baten bidez; bitartean presio baxuak ekialdera mugitu ziren. Goizean behe-hodei ugari izan genuen eta zirimiru pixka bate ginen, baina egunak aurrera egin ahala garbitzera egin zuen.

Apirilaren 13tik 17ra

Hilaren 13an zubi antiziklonikoarekin jarraitu genuen, Eskandinavian 500 hPa-eko mailan Omega formako blokeoarekin. Zerua hodei gutxirekin egon zen eta izotz txiki-ertaina egin zuen barnealdean; azpimarragarria izan zen Iturrietan neurturiko minimoak, -6.6 °C. Hurrengo egunean zubi antiziklonikoa hautsi egin zen, baina blokeoa indartu. Atlantikotik depresio bat hurbildu zen, eta erdi mailako hodeiak eta goi-hodeiak agertu ziren. Hilaren 15ean, egunaren lehen partean, hegoaldeko haizea ibili zen, tenperatura igo egin zen eta ateri eutsi zion; egunaren bigarren partean enbata gertatu zen, zaparradak eta trumoi-ekaitzak; ordubeteen 28 mm jaso ziren estazio batean eta tenperatura jaitsi egin zen. Eguraldi aldaketa hura blokeoa gainditu zuen ibar txiki batek eragin zuen. Lurrazalean, Irlandan zegoen depresio bati loturiko fronte hotz batek Iberiar penintsula zeharkatu zuen. Hilaren 16an eta 17an berriro egonkortu zen eguraldia. Hilaren 16an zerua hodei gutxirekin egon zen eta 17an erdi mailako hodei eta goi-hodei batzuekin, hego/hego-ekialdeko haizearen eraginez. Bi egun horietan tenperatura nabarmen igo zen.

**Apirilaren 18tik 22ra**

Hilaren 18an zirkulazio zonaletik ibar bat askatu zen eta goi-geruzan askatutako depresio bat kokatu zen Iberiar Penintsulan. Europa iparraldean presio altuekin jarraitu genuen, horrela erronbo itxurako blokeo bat sortu zen. Goi-geruzetako depresio askatuak fronte batzuk zituen lurrazalean. Horrela, hilaren 18an euria ugri egin zuen EAEn hegoaldean eta mendebaldean; azpimarragarria Espejoko datua, 24 orduan 34 mm pilatu ziren. Ekialdean apenas egin zuen euria. Hilaren 19an, goizaldean eta goizean goiz, euria egiten jarraitu zuen mendebaldean eta hegoaldean, baina ezegonkortasuna Penintsularen erdialdera mugitu zen eta goizean atertu egin zuen. Arratsaldean ostarteak zabaldu ziren eta tenperaturak nabarmen egin zuen gora. Hilaren 20an ez zen aldaketarik izan egonera sinoptikoan: goi-geruzetan askatutako depresioa Penintsularen hego7hego-ekialdean mugitu zen, presio altuekin jarraitu zuten Eskandinavian, 1043 hPa-eko presio maximoarekin. Zerua hodei gutxirekin egon zen. Arratsaldean hodeiak ugaritu egin ziren eta ekialdean zaparradaren bat bota zuen. Hilaren 21ean hodeiak ugaritu egin ziren eta arratsaldean isurialdeen banalerroan zaparrada txiki batzuk bota zituen. Hilaren 22an goi-geruzetako depresio askea bete egin zen eta eguraldia egonkortu egin zen; hodei batzuekin goizean goiz eta arratsalde-gauean.

Apirilaren 23tik 26ra

Egun horietan 500 hPa-eko mailako aska batek eragin zigun. Hilaren 23an eta 24an askaren ardatza Iberiar penintsularen mendebaldean zegoen. Lurrazalean, hilaren 23an, Galizia ipar-mendebaldean depresio bat zegoen. Hilaren 24an, beste depresio bat iritsi zen eta Britainiar uharteen hego-mendebaldean zentratu zen. Azken depresioa iparralderantz mugitu zen Azoreetako antizikloiak bultzatuta, gainera antizikloiak hilaren 25ean eta 26an indarra hartu zuen. Askak, iparraldera mugitzerakoan EAE zeharkatu zuen eta hilaren 26an aldendu zen. Egun haietan hegoaldeko haize bizi-gogorra ibili zen eta EAEn barrena fronteak eta ezegonkortasun lerroak pasa ziren, beraz zaparrada trumoiak bota zituen. Hilaren 25ean, azken orduetan, antizikloia gurerantz hurbildu ahala, haizeak ipar-mendebaldera egin zuen. Hilaren 26a trantsizio eguna izan zen, askak sorturiko ezegonkortasun hondarrak aldendu eta presio altuak iritsi ziren.

Apirilaren 27tik 30era

Atlantikotik antizikloia hurbildu zen eta pixkanaka kontinentean sartu zen. Horrela, hilaren 27an itsasaldeko haizea nagusitu zen bezala, hilaren 28an eki-osagaiko haizea nagusitu zen, eta hilabetea amaitu bitartean horrela jarraitu genuen. Hilaren 27an Britainiar uharteetan zegoen depresio bati loturiko fronte ahul batek eragin zigun. 500 hPa-eko mailan gailur bat sortu zen eta egonkortasuna ekarri zigun hilabeteke azken egunetarako. Hodeiak gutxitu egin ziren, baina goiz-lanbroa eta lainoa izan genituen.








Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2019ko apirileko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Tenp. °C	Tenp. max. °C	Tenp. max.abs. °C	Tenp. min °C	Tenp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max l/m ²	Euri- egunak.
Deusto	13.5	17.9	27.1	9.6	4.9	0	60.6	12.9	10
Lasarte	12.1	16.6	24.8	8.0	3.4	0	115.7	21.7	17
Arrasate	10.6	16.6	26.1	5.7	0.3	0	89.1	20.5	15
Abetxuko	9.7	16.2	22.0	4.1	-2.1	2	78.2	20.6	15
Páganos	10.1	15.8	22.6	5.4	-0.8	2	66.6	17.1	9



Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak



Pilatutako prezipitazioa

 Temperatura minimoa


 Batez besteko temperatura

 Temperatura maximoa




Prezpitazioaren jokaera


Behatutako prezpitazioa
Precipitación observada




Prezpitazio normala
Precipitación normal



Prezpitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normal



Prezpitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normal





Muturreko egoerak

Apirilean 12 abisu hori igorri ziren: 1 prezipitazio handiagatik, 2 elurragatik, 1 haizeagatik haizeguneetan, 2 haizeagatik haizeguneak ez diren lekuetan, 4 olatuengatik nabigaziorako, 1 enbatagatik eta 1 izotzagatik.

- Hilaren 3an eta 4an antizikloi zabal bat kokatu zen Ipar Atlantikoan eta Britainiar uharteetan depresio bat zegoen. Goi-geruzan askatutako depresio bat sortu zen Bizkaiko golkoan (Kantauri ekialdean $-30\text{ }^{\circ}\text{C}$ baino tenperatura baxuagoarekin) eta ezegonkortasun handia eragin zuen, bereziki ekialdean. Goi-geruzetako aire hotzarekin batera, erdi mailako geruzetan ere aire masa hotza agertu zen, hilaren 4an goizean goiz $-3\text{ }^{\circ}\text{C}$ -raino jaitsi zen tenperatura. Hilaren 3an prezipitazio txikia egin zuen Araban, eta txiki-ertaina kantauri isurialdean, baina oso ugaria izan gabe; egunean zehar elur-kota jaisten joan zen eta gauean 500-600 m inguruan kokatu zen. Hilaren 4an goizaldean, elur txikia egin zuen 500-600 m inguruan, baina goizeko lehen orduetan elur-kota oso bizkor igo zen eta aurreko gauean kota ertainetan pilatu zen elur guztia urtu egin zen, udaberrian ohikoa den bezala. Goizetik aurrera, gainera, prezipitazioa nabarmen urritu zen, batez ere barnealdean.

Asteazkena, hilak 3: Abisu Horia elurragatik barnealdean 12etatik 24etara ordu lokala.

Osteguna, hilak 4: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 06etara ordu lokala.

- Hilaren 12an, 850 hPa-eko mailan $0\text{ }^{\circ}\text{C}$ inguru zeuden. Arratsalde-gauean zerua hodei gutxirekin edo oskarbi geratu zen eta hilaren 13an goizaldean ere horrela jarraitu zuen. Gainera, gau artan Iberiar penintsula aintzira barometroarekin egon zen, beraz haizea aldakorra eta ahula izan zen. Horrela, izotz txikia egin zuen ia Araba osoan, eta baita Bizkaia eta Gipuzkoa barnealdean ere; Arabako mendi inguruetan izotz handia egin zuen. Estazio batzuetan serie klimatologikoetako baliorik baxuenak neurtu ziren.

Estazioa	Tmin ($^{\circ}\text{C}$)
Iturrieta	-6.6
Pagoeta	-5.3
Subijana	-5
Navarrete	-4.7
Salvatierra	-4.6
Sarria	-4.6
Trebiño	-4.5
Albaina	-4.4
Tobillas	-4.1
Arkauti	-4
Otxandio	-2.3
Abetxuko	-2.1
Beluntza	-1.6



Larunbata, hilak 13: Abisu Horia tenperatura minimoak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala.

- Hilaren 15ean depresio bat iparralderantz mugitu zen, Iberiar penintsularen ipar-mendebaldetik Irlanda ipar-mendebaldera arte. Arratsaldean ezegonkortasun larro batek Kantauri ekialdea zeharkatu zuen eta gero fronte-sistema batek, azken hori lehen aipaturiko depresioari loturikoa. Horrela, goizean hegoaldeko haizea nagusitu zen, baina eguerdi inguruan ipar-mendebaldera egin zuen, bolada oso gogorrekin (Punta Galea, 74.7 km/h; Zarautz, 87.8 km/h; Santa Clara, 90.3 km/h) eta tenperaturaren bat-bateko jaitsiera izan zen. Adibidez kostaldean tenperatura maximoak 24 °C ingurukoak izan ziren (Punta Galea, 24.6 °C; Zarautz, 23.5 °C), eta ordubetean tenperatura 14 °C ingurura jaitsi zen. Deustuko estazioan tenperatura 27.1 °C-tik 18 °C-ra jaitsi zen ordu erdian, eta 64.9 km/h-ko ufada neurtu zen. Haize norabide aldaketaren ondoren haizeak ipar-mendebaldetik jarraitu zuen jotzen, baina indarra galdu zuen.

Astelehena, hilak 15: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Enbata kostaldean 17etatik 20etara ordu lokala.

- Hilaren 15ean aska bat hurbildu zen Atlantikotik eta bere goranzko adarrak eragin zigun eguerditik aurrera. Ezegonkortasuna handitzeaz gain fronte batek zeharkatu zuen EAE eta haizeak bat-batean eta zakar egin zuen ipar-mendebaldera. Eguerditik aurrera zaparrada handiak bota zituen, trumoitsuak, eta zenbait lekutan oso handiak izatetik hurbil izan ziren. Txingorra ere bota zuen (ale txikiak) eta haize bolada oso gogorak neurtu ziren (Ordunte, 87.5 km/h; Alegría, 84.7 km/h; Arrasate, 84.7 km/h; Trebiño, 83.3 km/h; Zambrana, 81.9 km/h; Gasteiz, 81,1 km/h). Enkarterrietan hasi ziren zaparrada trumoitsuak, eta gero Bizkaia eta Arabara zabaldu ziren. Arratsalde amaieran iritsi ziren Gipuzkoara, batez ere barnealdera. Gauean ere zaparradak botatzen jarraitu zuen, baina intentsitate txikiagokoak.

Estazioa	l/m ² 10 min.	l/m ² h
Urkulu	13.7	28.3
Aitzu	12.3	26.5
Cerroja	7.4	21.1
Areta	8.1	20.3
Gardea	7.6	19.6
Orozko	8.5	18.6
Oñati	7.7	17.7
Saratxo	8.2	15.8
Navarrete	10.5	15.1

Astelehena, hilak 15: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 17etatik 24etara ordu lokala.



- Hilaren 17an Atlantikoko depresio bat sartu zen Iberiar penintsulara ipar-mendebaldetik eta hego-ekialdeko haize indartsua eragin zuen. Haizea gehienbat Araban, Gipuzkoa barnealdean eta Bizkaiko ekialdeko haizeguneetan nabaritu zen. Hilaren 18ko goizaldean depresioari loturiko fronte batek EAE zeharkatu zuen eta haize-bolada oso gogor batzuk neurtu ziren (Ilarduia, 82.2 km/h).

Estazioa	Hilak 17 km/h
Oiz	100.9
Ilarduia	93.5
Zizurkil	84.7
Kanpezu	82.9

Asteazkena, hilak 18: Abisu horia haizeagatik haizeguneak ez diren lekuetan Gipuzkoan eta Araban 00etatik 24etara ordu lokala.

Osteguna, hilak 18: Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren lekuetan Gipuzkoan eta Araban 00etatik 06etara ordu lokala.

- Atlantikoan zegoen depresio bat Bizkaiko golkora mugitu zen eta azkenean Britainiar uharteren hego-mendebaldean kokatu zen. Depresioari loturiko fronte-sistema batek Kantauri ekialdea zeharkatu zuen arratsaldeko azken orduetan eta gaueko lehen orduetan. Ondorioz, hilaren 24an goizaldean hego-ekialdeko haizea zakartu egin zen eta bolada oso gogorrak neurtu ziren mendebaldeko haizegunetan goizean, bereziki Enkarterrietan eta Araba mendebaldean. Eguneko erdialdeko orduetan haize-boladak lurralde osoan neurtu ziren. Egun amaieran haizea apur bat baretu zen eta fronte sartzearekin batera haizeak mendebal/ipar-mendebaldera egin zuen kostaldean, baina norabide aldaketaren unean haizea ez zen zakartu.

Estazioa	Hilak 24 Haize-boladak km/h
Orduña	110.8
Cerroja	105.1
Zizurkil	93.9
Ilarduia	80.1

Asteazkena, hilak 24: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 09etatik 24etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen dueneko egun kopurua.

Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologi gidan aurki daiteke:

http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html.

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeke daude.